

**2007ko URTARRILAREN 11an LARRAULGO UDAL PLENO ARETOAN
OSPATUTAKO OHIKO UDALBATZAREN AKTA**

2007ko urtarrilaren 11an, Larraulgo Udaletxeko Pleno Aretoan, gaueko 20.30 orduetan, Jon Urkaregi Garmendia alkatearen lehendakaritzapean, behean aipatzen diren zinegotziak biltzen dira.

ALKATEA: Jon Urkaregi Garmendia

ZINEGOTZIAK: Adela Mendiola Gomez
Jon Tejeria Otermin

Bere ezin etorria adierazi dute:

Iñigo Aginalde Lertxundi
Karlos Irazu Muñoa

IDAZKARIA: M^a Eugenia Muñoa Irureta

...//...

Alkate-lehendakari jaunak bilerari hasiera ematen dio, ondorengo gaiak tratatzen direlarik:

1. Ondoren adierazten diren Udalbatzarreko aktak onestu, hala badagokio:
 - 2006ko abenduaren 5ean ospatutako ohiko udalbatzarra.
2. Alkatetza ebazpenen berri ematea.
3. 2006 ekitaldiko aurrekontuan 03/2006 kreditu aldaketa espedienteari, kreditu trasferentzia modalidadean, hasierako onespena ematea, hala badagokio.
4. Construcciones Trati, S.L. baltzuak aurkezturiko idatzia, non Udal biltegia erabiltzeagatik sortu litezkeen kalteengatik erantzuteko jarritako bermea itzultzeko eskatzen duen, aztertzea.
5. I. Z. andereak eginiko eskaera aztertzea.
6. J. A. U. andereak L. etxearen inguruan itxitura bat egiteko eskaera onartzea, hala badagokio.
7. A. V. T. jaunak eginiko eskaera aztertzea.
8. I. P. L. jaunak aurkezturiko idatzien berri ematea.
9. Hirukide ikastetxeak aurkezturiko eskaera aztertzea.
10. Jesusen Bihotza Ikastolak aurkezturiko eskaera aztertzea.

11. Gipuzkoako Probintziako Udalentzat, Interes Orokor eta Sozialeko obra edo zerbitzuetan 2007rako langabetuak kontratatzeko dirulaguntzaren berri ematea.
12. Larraulgo AA.SS-etako 3.1 unidateko urbanizazioa errezeptionatzea, hala badagokio.
13. 2007ko Udal zerga eta tasen gaineko aurkezturiko hobari eskaerak onartzea, hala badagokio.
14. Fakturak eta ordainketak.
15. Beste batzuk.
16. Erregu, galderak eta mozioak.

.../...

Bilkura 20.45 orduak direnean hasi da.

LEHENENGO PUNTUA

ONDOREN AIPATZEN DIREN UDALBATZAREN AKTAK ONESTU, HALA BADAGAKIO.

☐ 2006 urteko abenduaren 5eko Udalbatzarraren Ohiko bilkuraren akta. Irakurri ondoren beratartuek aho batez onestu dute.

BIGARREN PUNTUA

ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA

Alkate jaunak azkeneko Udalbatzarretik emandako ebazpenen berri ematen du:

- 29/2006 Alkatetza Ebazpena, abenduaren 5ekoa, Larraulgo AA.SS-etako 2.1 exekuzio unitateko etxebizitza tasatu baten esleipenduna izan zen Juan Mari Iraola Elozegi jaunari Larraulgo Udaletxean ipinitako 3000 eurotako fidantza itzultzea, ebazten duena.
- 30/2006 Alkatetza Ebazpena, abenduaren 18koa, Pabeopin S.L baltzuari Larraulgo AA.SS-etako 3.1 exekuzio unidateko 10 etxebizitzaren udalaren ur horniketa sarerako hasierako engantxeagatik dagokion kitapena onartzea erabakitzen duena.
- 31/2006 Alkatetza Ebazpena, abenduaren 18koa, Gestion y Desarrollo Goiargi S.L baltzuari Larraulgo AA.SS-etako 2.1 exekuzio unidateko 14 etxebizitzaren udalaren ur horniketa sarerako hasierako engantxeagatik dagokion kitapena onartzea erabakitzen duena.
- 32/2006 Alkatetza Ebazpena, abenduaren 19koa, faktura zerrenda 216 eurotako muntai duena, onartzea erabakitzen duena.

- 33/2006 Alkatetza Ebazpena, abenduaren 29koa, Antton Amonarriz kultur gunerako aulkien hornidura burutzeko Montte baltzuari hornidura kontratua esleitzea, onartzen duena.
- 34/2006 Alkatetza Ebazpena, abenduaren 30ekoa, 2006ko aurrekontu orokorraren barruan 2006/03 kreditu aldaketa espedienteari hasiera ematea erabakitzen duena.

Udalkideak jakinaren gainean gelditzen dira.

HIRUGARREN PUNTUA

2006 EKITALDIKO AURREKONTUAN 03/2006 KREDITU ALDAKETA ESPEDIENTEARI, KREDITU TRASFERENTZIA MODALIDADEAN, HASIERAKO ONESPENA EMATEA, HALA BADAGOKIO.

Udala honen 2006 ekitaldiko aurrekontuari eragiten dion gastuen aurrekontu partiden arteko kreditu transferentziaren bidez egin beharreko kreditu aldaketarako espedientearen berri eman da.

Idazkari-kontuhartzaileak egindako txostena irakurri du, zeinak adierazten baitu aipatu espedientea aplikagarria zaion araudiari egokitzen zaiola.

Era berean, Kontuen Batzorde Informatzaileak egindako aldeko txostena eta onspen proposamena irakurri dira.

Eztabaidatu ondoren botutara jarri eta Udalbatzarrak, ahobatez ondorengoa,

ERABAKITZEN DU:

LEHENGOA.- Proposamenean zerrendatzen diren gastuen aurrekontu partiden arteko transferentzia bidez egin beharreko kreditu aldaketarako espedientea onestea, Udala honen Aurrekontuari dagokiona, kapitulukako ondoko laburpenaren arabera:

Transferitutako kredituak biltzen dituzten gastuen partidak (bajak)

Partida	Izena	Hasierako kreditua	Gutxipena	Amaierako kreditua
----------------	--------------	---------------------------	------------------	---------------------------

100.111.00.01	Oinarrizko ordainketak: Alkatea	12.800,00	400,00	12.400,00
120.120.00.01	Funtzionarioen oinarrizko ordainketak	30.600,00	800,00	29.800,00
160.120.00.01	Gizarte Segurantza. Funtzionaria	8.800,00	500,00	8.300,00
160.120.00.04	Elkarkidetzaren kuotak	988,12	182,18	805,94
210.510.00.01	Azpiegitura eta ondasun gastuak	6.200,00	550,00	5.650,00
210.510.00.02	Azpiegitura gastuak: Bideak	2.000,00	1.600,00	400,00
212.433,99.02	Azpiegitura gastuak: Argitegi publikoa	1.000,00	600,00	400,00
220.120.00.01	Material arrunta ez inbentagarria	9.600,00	850,00	8.750,00
221.510.00.11	Tresnak eta erremientak	1.100,00	987,07	112,93
330.010.00.01	Maileguen interesak	9.800,00	7,29	9.792,71
430.420.00.01	Udal Administrazioari: Eskola	2.000,00	167,88	1.832,12
601.510.00.01	Azpiegitura eta urbanizazioak	6.000,00	6.000,00	0,00
622.510.00.01	Eraikinak eta bestelako eraikuntzak	2.000,00	1.500,00	500,00
643.120.00.01	Ikerketa, azterketa, proiektuak, ...	5.000,00	5.000,00	0,00
683.120.00.01	Inbertsioak: Ondare ondasunak	10.000,00	781,69	9.218,31
GUZTIRA ...			19.926,11	

Gehitutako diren kredituak biltzen dituzten gastuen partidak (altak)

Partida	Izena	Hasierako kreditua	Gehikuntza	Amaierako kreditua
131.120.00.01	Aldarteko laboralen ordainketak	4.114,28	1.318,25	5.432,53
160.120.01.01	Gizarte segurantza-Pertsonal laborala	4.500,00	563,93	5.063,93
210.441.00.01	Azpiegitura gastuak:ur sarea	2.457,33	344,12	2.801,45
221.433.00.01	Argi hornidura: Argitegi publikoa	1.400,00	23,04	1.423,04
222.120.00.01	Telefono bidezko komunikazioak	3.500,00	238,71	3.738,71
226.450.00.06	Herriko jaiak	9.653,68	326,66	9.980,34
226.120.00.99	Bestelako hainbat gastu	501,14	290,00	791,14
227.120.00.01	Garbiketa zerbitzua	692,84	101,43	794,27
227.442.00.01	Garbiketa, zabor bilketa zerbitzua	11.041,58	2.216,22	13.257,80
227.450.00.04	Kirol gastuak	2.261,90	434,45	2.696,35
227.120.00.07	Aholkularitza: Azterketa, lan teknikoak	7.254,15	564,84	7.818,99
231.111.00.01	Goi-karguen dieta, lokomozio,...	9.000,00	47,60	9.047,60
369.120.00.01	Bestelako finantza gastuak	99,26	7,29	106,55
480.120.00.01	Partikularrei aportazioak	804,10	167,88	971,98
622.450.00.01	Kultur zentru balioanitza	626.850,00	13.281,69	640.131,69
GUZTIRA ...			19.926,11	

BIGARRENA.- Egintza hau bestelako tramiterik gabe irmo eta betebeharrekoa denez gero, bidezkoa da onetsitako kreditu aldaketa Fondoan Kontuhartzaitza Zerbitzuek kontabilitatean berehalako ondorioekin isladatzea.

LAUGARREN PUNTUA

CONSTRUCCIONES TRATI, S.L BALTZUAK AURKEZTURIKO IDATZIA, NON UDAL BILTEGIA ERABILTZEAGATIK SORTU LITEZKEEN KALTEENGATIK ERANTZUTEKO JARRITAKO BERMEA ITZULTZEKO ESKATZEN DUEN, AZTERTZEA.

Ikusirik Construcciones Trati, S.L baltzuak aurkezturiko idatzia non udal biltegiaren erabilera egokia bermatzeko BBVA entitatean jarritako 0182000389393 zenbakia duen 1.200 eurotako abala.

Ikusirik Construcciones Trati S.L baltzuak udal biltegiaren erabilera bukatu duela eta 2007 urteko urtarrilaren 8an Udaleko Aholkulari Teknikaria den Eba Erkizia Brion andereak luzaturiko txostena, non udal biltegiaren lehengo egoera eta gaur egungoa ikusirik, hau da, dena ondo dagoela ikusirik eskatu zuen abala bueltatzea egokia dela ikusten duela, adierazten duen.

Bertaratuek, aho batez

ERABAKITZEN DUTE

LEHENGOA.- Construcciones Trati, S.L baltzuarri Larraulgo udalaren aurrena ipinitako 0182000389393 zaenbaki dun 1.200 eurotako abala itzultzea.

BIGARRENA.- Interesdunari akordio honen berri ematea.

BOSGARREN PUNTOA

I. Z. ANDEREA EGINIKO ESKARIA AZTERTZEA.

Ikusirik I. Z. andereak aurkeztutako idatzia non E. atxean bizi dela eta etxera dijoan bidegurutzean postontziak jartzea eskatzen duen.

Ikusirik inguru horretan zortzi etxebizitza daudela eta bizilagun hauek elizaren horman dauden postontziak libre utziko lituzketela .

Ikusirik Larrunbideko bidegurutzea leku egokia dela postontzi berriak jartzeko.

Gaia aztertutik, bertaratuek

ERABAKITZEN DUTE

LEHENGOA.- Larrunbideko bidegurutzean zortzi postontzi berri jartzea inguruko bizilagunentzat.

BIGARRENA.- Interesdunari akordio honen berri ematea.

SEIGARREN PUNTOA

J. A. U. ANDEREAK L. ETXEAREN INGURUAN ITXITURA BAT EGITEKO ESKAERA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.

Ikusirik J. A. U. andereak aurkezturiko idatzia non I. etxearen inguruan itxitura bat egin nahi duela adierazten duen.

Ikusirik itxitura nondik noraino joango den adierazten duen plano bat aurkeztu duela.

Bertaratuek

ERABAKITZEN DUTE

LEHENGOA.- J. A. U. andereari I. etxearen inguruko lursailetan itxitura bat egiteko baimena ematea.

BIGARRENA.- Interesdunari akordio honen berri ematea.

ZAZPIGARREN PUNTOA

A. V. T. JAUNAK EGINIKO ESKAERA AZTERTZEA.

Ikusirik A. V. T. jaunak aurkezturiko idatzia non Larraugo Urbeltz auzoko x Zenbakidun etxebizitzaren aurrean zuhaitz bat dagoela eta kalteak sortzeko arriskua dagoela adierazten duen eta ondorioz zuhaitza kentzea eskatzen duen.

Alkate jaunak adierazi du, zuhaitza begiratzen aritu dela eta adar batzuk etxetik nahiko gertu gelditzen direla.

Gaia azterturik bertaratuek

ERABAKITZEN DUTE

LEHENGOA.- Urbeltz plaza x zebakidun etxearen parean gelditzen den zuhaitza podatzea, hau da, etxetik gertuen gelditzen diren adarrak moztea.

BIGARRENA.- Interesdunari akordio honen berri ematea.

ZORTZIGARREN PUNTOA

I. P. L. JAUNAK AURKEZTURIKO IDATZIEN BERRI EMATEA.

I. P. L. jaunak Udaletxean aurkezturiko hainbat idatziren berri eman da.

Bertaratuek berri eman da gelditzen dira.

BEDERATZIGARREN PUNTOA

HIRUKIDE IKASTETXEAK AURKEZTURIKO ESKAERA AZTERTZEA.

Ikusirik 2007 urteko urtarrilaren 4an HIRUKIDE IKASTETXEAK aurkezturiko idatzia non Larraulgo herritarrei bere eskeintzaren berri emateko xedez 1995 eta 2006. urtean jaiotako haurren erroldak bidaltzea eskatzen duten.

Ikusirik biztanleen udal erroldako datuak izaera pertsonala dutela eta 15/1999 Lege Organikoak xedatutakoaren arabera ezin direla lagatu interesdunen baimenik gabe.

Gaia aztertutik bertaratuek aho batez ondorengoa,

ERABAKITZEN DUTE

LEHENA.- HIRUKIDE IKASTETXEari Larraulgo biztanleen udal erroldako daturik ez lagatzea.

BIGARRENA.- HIRUKIDE IKASTETXEari akordio honen berri jakinaraztea.

HAMARGARREN PUNTOA

JESUSEN BIHOTZA IKASTOLAK AURKEZTURIKO ESKAERA AZTERTZEA.

Ikusirik 2006 urteko abenduaren 15ean Jesusen Bihotza Ikastolak aurkezturiko idatzia non Larraulgo herritarrei bere eskeintzaren berri emateko xedez 2006, 2005, 2004 eta 1995 urtean zehar jaiotako haurren erroldak bidaltzea eskatzen duten.

Ikusirik biztanleen udal erroldako datuak izaera pertsonala dutela eta 15/1999 Lege Organikoak xedatutakoaren arabera ezin direla lagatu interesdunen baimenik gabe.

Gaia aztertutik bertaratuek aho batez ondorengoa,

ERABAKITZEN DUTE

LEHENA.- Jesusen Bihotza ikastolari Larraulgo biztanleen udal eroldako daturik ez lagatzea.

BIGARRENA.- Jesusen Bihotza ikastolari akordio honen berri jakinaraztea.

HAMAIKAGARREN PUNTOA

GIPUZKOAKO PROBINTZIAKO UDALENTZAT, INTERES OROKOR ETA SOZIALEKO OBRA EDO ZERBITZUETAN 2007RAKO LANGABETUAK KONTRATATZEKO DIRULAGUNTZAREN BERRI EMATEA.

Ikusirik Larraulgo Udalerriko Kultur Zentru Balioanitzaren eraikuntza amaitu dela, obra behin betikoz errepezionatu dela eta Antton Amonarriz Kultur Gunea irekita dagoela

Ikusirik funtzionamendu egokia eman ahal izateko, hau da, antolaketa, jarduerak prestatu etab programa bat egituratu beharra egonik, eta lan hori burutzeko Dinamizatzaile Sozio Kultural baten lan kontratazioa aurreikusten dela.

Ikusirik aipaturiko funtzioek eta beharrek behin behineko izaera dutela, herriko Kultur Zentru Balioanitza martxan ipini eta izaera estrukturala edukiko duten lanpostuak definitu bitartean, eta hori dela eta aurreikusten den lan kontratuak ere iraupen mugatua izango duela.

Ikusirik 2007 urterako INEMen Enplegua Sustatzeko Programaren barnean dirulaguntza eskaera egiteko aukera dagoela burutuko den lan kontratazioaren eremuan.

Gaia azterturik bertaratuek aho batez ondorengoa,

ERABAKITZEN DUTE

LEHENA.- 2007 urterako Enplegua Sustatzeko INEMen Programaren eremuan, INEM eta Udalen arteko hitzarmena dela eta, Larraulgo Udalerrian Larraulgo Kultur Zentru Balioanitzari funtzionamendu egokia emateko ardatzak emango dituen Dinamizatzaile sozio-kultural bat kontratatzea, sei hilabeteko eperako jardunaldia osoan.

BIGARRENA.- Aipaturiko Lan Kontratazioa gauzatzeko dirulaguntza eskaera burutzea INEMera, 2007 urterako Enplegua Sustatzeko INEMen Programaren eremuan, INEM eta Udalen arteko hitzarmena dela eta.

HAMABIGARREN PUNTOA

LARRAULGO AA.SS-ETAKO 3.1 UNIDADEKO URBANIZAZIOA ERREZEPZIONATZEA, HALA BADAGOKIO.

Ikusirik Pabeopin, S.L baltzuak Larraulgo AA.SS-etako 3.1 exekuzio unitateko urbanizazioa errezepzionatzeko eskaera aurkeztu zuela.

Ikusirik Udaleko Aholkulari Teknikaria den Eba Erkizia Brion andereak 2006 urteko abenduaren 5ean idatziriko txostenean zioenaren arabera dokumentazioa falta zela eta ondorioz Udalbatzarrak 2006 urteko abenduaren 5ean hartutako akordioz urbanizazio lanak ez errezepzionatzea erabaki zuela falta zen dokumentazioa osatu bitartean.

Ikusirik Pabeopin, S.L baltzuak falta zen dokumentazio osagarria aurkeztu duela.

Ikusirik 2007 urteko urtarrilaren 9an Udaleko Aholkulari Teknikaria den Eba Erkizia Brion andereak luzaturiko txostena non ondorengoa adierazten duen:

“Juan Luis Otaegui Zubeldia juanak, PABEOPIN S.L-ren izenean 3.1 exekuzio unidatearen urbanizazioaren errezepzioa egiteko eskaera ikusirik, eta 2006-ko abenduaren 5ean Juan Luis Otaegui berarekin ikuskaritza bisita teknikoa egin ondoren, egindako obra, lizentzia eskatzerakoan aurkeztu zen exekuzio proiektuari egokitzen zaiola adierazten dut, eta udalaren partetik beharrezkoak diren dokumentuak aurkeztu direnez, egokia izango da urbanizazioa errezepzionatzea.

Dena de, hilabete baten epean ondorengo lanak egiten ez badira, PABEOPIN-ek Udaletxean utzitako abala exekutatu da.

Urbanizazioa burutzeko gelditzen diren lanak:

- Irigarritasun araudiak esaten duen bezala eskaileretan derrigorrezkoa da bi aldeetan baranda egotea.

Beraz, alde baten falta diren barandak jarri beharko dira.

- Elbarrien aparkalekuan derrigorrezkoak diren seinaleak jarri beharko dira”.

Ikusirik Adela Mandioal zinegotziak F-20 Ooren guneko libreak txukuntzeko eskatu beharko litzaiokeela adierazi duela.

Gaia eztabaidatu ondoren, bertaratuak

ERABAKITZEN DUTE

LEHENGOA.- Larraulgo AA.SS-etako 3.1 exekuzio unidateko urbanizazio lanak errepezionatzea.

BIGARRENA.- Pabeopin, S.L baltzuari hilabeteko epea ematea ondorengo lanak egiteko:

- Eskaileretako alde baten falta diren barandak jarri.
- Elbarrien aparkalekuan derrigorrezkoak diren seinaleak ipini.

Aipatu lanak emandako epean burutuko ez balira Udalak abala exekutatu du lan hoiek egiteko.

Horrez gain F-20-Ororen gunek libreak, udalari lagatu beharrekoak, txukundu beharko dira.

HIRUGARRENA.- Interesdunari akordio honen berri ematea.

HAMAIRUGARREN PUNTOA

2007KO UDAL ZERGA ETA TASEN GAINEN AURKEZTURIKO HOBARI ESKAERAK ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.

Ikusirik 2007 ekitaldiko udal zerga eta tasetan hobariak jasotzeko, Larraulgo Udalak eskaerak aurkezteko epe bat ireki zuela 2006 urteko abenduaren 1etik 31ra bitartean.

Ikusirik aipaturiko epean ondorengo eskaerak aurkeztu direla:

- K. J. S., trakzio mekanikodun ibilgailuan gaineko zerga, XX-XXXX-XX ibilgailua, ibilgailu historikoa, 25 urtetik gorakoa izateagatik.
- J. G. A. I., trakzio mekanikodun ibilgailuen gaineko zerga, XX-XXXX-XX , minsubalia kalifikazioa izateagatik.
- A. U. L., ura eta zaborraren tasaren gaineko hobaria.

Idazkari andreak adierazi du indarrean dauden ordnanta fiskalen arabera eta aurkeztutako dokumentazioaren arabera Ura eta Zaborraren gainekoak 100 %-eko hobaria dagokiola.

Gaia azterturik bertaratuek aho batez ondorengoa,

ERABAKITZEN DUTE

LEHENA.- K. J. S. jaunari Trakzio Mekanikodun Ibligailuen gaineko udal zergaren ordenantza fiskal erregulatzaileak xedatutakoaren arabera aipaturiko ibilgailuaren zergaren gaineko %50eko hobaria jasotzeko eskubidea duenez, eskubide hori arrezagutzea, eta burutu den eskaera onartzea.

BIGARRENA.- J. G. A. I. jaunari, 14/1989 Foru Arauak 2 artikuluan aurreikusten duen moduan Trakzio Mekanikodun Ibligailuen gaineko udal zergagatik salbuetsita dauden supostuetako batean aurkitzen delako, eskubide hori arrezagutzea eta burutu duen eskaera onartzea.

HIRUGARRENA.- A. U. L. jaunari 2007 urteko Ura eta Zaborraren gaineko udal tasen ordenantza fiskal erregulatzaileak xedatutakoaren arabera aipaturiko ura eta zaborraren tasaren gaineko 100 % hobaria onartzea.

HAMALAU GARREN PUNTOA **FAKTURAK ETA ORDAINKETAK.**

Alkate jaunak ondoren adierazten diren fakturak eta ordainketak aurkezten ditu bere onespenerako:

- EBA ERKIZIA BRION	816,73 €
- DMACROWEB	90,69 €
- MANPEL	138,94 €
- GSM	1108,11 €
- GARAJE EKIN	742,31 €
- KIROLZER	172,15 €
- GIPUZKOAKO URAK, S.A	6.514,05 €
- GIPUZKOAKO URAK, S.A	2.671,57 €
- GIPUZKOAKO URAK , S.A	358,35 €
- IZFE, S.A	364,24 €
- ARGITU	150,22 €
- VODAFONE	108,38 €
- FERRETERIA BARBE, S.L.	26,18 €
- TELEFONICA	0,70 €
- TELEFONICA	28,66 €
- TELEFONICA	86,27 €
- IBERDROLA	76,73 €

- IBERDROLA	150,60 €
- EUSKALTEL	76,29 €
- ROLCHEM, S.L.	208,80 €
- IBERDROLA	126,78 €
- IBERDROLA	18,58 €
- IBERDROLA	236,40 €
- REPSOLGAS	46,35 €
- ARRIZABAL	730,80 €
- ARGITU	116,23 €
- IRATZE	104,40 €
- FERRETERIA BARBE, S.L.	16,50 €
- MANPEL	45,24 €
- ZALDUA	621,90 €

Udalbatzarrak **ahobatez** hurrengoa,

ERABAKITZEN DU

LEHENGOA.- Aipaturiko fakturak, denera **15.953,15 Euro**tako kopurua osatzen dutenak onartzea.

HAMABOSTGARREN PUNTOA **BESTE BATZUK**

Udal Batzarrak presazko eta premiazko arrazoiak direla medio aho batez gai zerrendatik at dauden hurrengo gaiak eztabaidatzea erabakitzen du.

- **J. U. G. jaunak egin duen eskaera aztertzea.**

Ikusirik J. U. G. jaunak 2006 urteko azaroaren 20an aurkeztutako idatzia, non O. izeneko lursailaren jabe izanik, bertan ur iturri bat jarri nahi duela, adierazten duen baratzako lanean jarduteko asmoarekin.

Horretarako Añezabaletako bi baserrietarako omen dagoen “boca de riego”-tik ura hartu eta bere terrenoetara herri bidearen bazterretik eraman nahi duela adierazten du, obraren infrastrukturaren kostea berak asumituko lukeelarik eta ondoren infraestruturara hori herriari zeditu edo lagako liokelarik.

Ikusiri 2006 urteko azaroaren 23ko Udalbatzarrean eskaera aztertu eta gero, onodorengo bilkura batean aztertzeke gaia mahai gainean uztea erabaki zela.

Ikusirik 2006 urteko abenduaren 5ean ospatutako Udalbatzarrean Memoria bat eskakizunaren xedea eta ezaugarriekin, tuboaren ezaugarriak eta bere ibilbidea adierazten den plano bat eta Aurrekontu bat ekartzeko eskatu zitzaiola.

Ikusirik eskatutako dokumentazioa Larraulgo udalean aurkeztu dela, aurkeztutako aurrekontua 900 eurotakoa delarik.

Ikusirik 2007ko urtarrilaren 11ean Udaleko Aholkulari Teknikaria den E. E. B. andreak eginiko txotena non ondorengoa adierazten duen:

Ur-hartzea punturik egokiena udal langilearein ikusita dago eta erabili behar den materiala egokia da.

Urari aman behar zaion erabilerak garrantzi handia ez duenez, eta kontadorea jartzen dela ikusirik egokia izango da baimena ematea beti ere hodia bide hertzetik pasatzen bada.

Uraren paso hau lursail pribatu batetik egingo balitz, beharrezko izango litzateke jabearen baimena idatzia ekartzea.

Gaia eztabaidatu ondoren, eta Alkate-Lehendakari jaunaren abstentzioz, 30/1992, legeak 28.2 artikuluan aurreikusitako kasu batean aurkitzen delako,

ERABAKITZEN DUTE

LEHENGOA.- J. U. G. jaunari bere jabetzakoa den O. lursailean baratzeko lanetan jarduteko ur iturri bat jartzeko baimena ematea, eginiko obra edo infraestruturaren herriari lagatu beharko diola eta gogoraraziz kontadore bat jarri beharko duela eta indarrean dauden ordenantza fiskalen arabera dagokion tasa ordaindu beharko duela.

BIGARRENA.- Indarrean dauden ordenantza fiskalen arabera dagokion kitapena onartzea.

- **Larrunbideko bidegurutzean ipiniko diren posontzien hornidura burutzeko kontratu administratiboa adjudikatzea**

Ikusirik Udalbatzarrak akta honetako bostgarren puntuan Larrunbideko bidegurutzean zortzi postontzi berri inguruko bizilagunentzat jartzea erabaki duela.

Ikusirik ponstontzi hoi hornidura burutzeko J.L. Velez baltzuak aurrekontua, 665,59 eurotakoa dena, aurkeztu duela.

Ikusirik Idazkari andreak adierazi duela kontratu honen aurrekontua ikusita bidezkoa dela 2/2000 legea, kontratuak arautzen dituenak 56 eta 176 artikuluetan xedatutakoaren arabera hornidura kontratu txiki modalitatean egitea.

Bertaratuak, gaia aztertu ondoren

ERABAKITZEN DUTE

LEHENGOA.- Larrunbideko bidegurutzean ipiniko diren zortzi postontziren hornidura kontratua J.L. Velez baltzuari esleitzea.

BIGARRENA.- Interesdunari akordio honen berri ematea.

- **Idazkari andreak ondorengo gaien berri eman du.**
- EUDEL eta Garapenek antolatuta datorren urtarrilaren 22an Gasteizen hiri behatokiei buruzko jardunaldia ospatuko dela.
- Gipuzkoako Goru Aldundiko Giza Eskubideetarako, Enplegurako eta Gizarteratzeko Departamentuak 633,57 eurotako dirulaguntza bat eman duela, haur, nerabe eta gazteentzako jarduerak aurrera eramateko.
- Gipuzkoako Foru Aldundiko Garapen Iraunkorreko Departamentuak Tokiko Agenda 21etako ekintza planak bultzatzeko , hondakinen bilketa puntua egokitzeko 1.488,07 €tako dirulaguntza eman duela.
- Euskal Herria Irratiak eskualdearen promozio turistikoa egiteko aurkeztu duen proposamena.

Bertaratuak berri eman da gelditu dira.

HAMASEIGARREN PUNTOA **ERREGU, GALDERA ETA MOZIOAK**

Beste gairik ez dagoenez, gaueko 22.00 orduak direnean Alkate jaunak bilera amaitutzat ematen du, nik, Idazkari-Kontuhartzaile naizen honek akta honetan jasotakoa ziurtatzen dudalarik.

ALKATEA
Jon Urkaregi

IDAZKARI-KONTUHARTZAILEA
M^a Eugenia Muñoa Irureta